Hiri Antolakuntzako Plan Berezia Irungo Santiago Zubia / Iparralde-Gal gunean

1. lauhileko azken ematea

Hirigintza I – 2009/10 ikasturtea

Irungo Plan Orokorrak proposatutako hirigintza-eraikigarritasun bera aplikatuko zaio guneari: **0.85** m^2 sabai / m^2 lurzoru. Laga beharreko gutxieneko estandarrei dagokienez, EAEko Lurzoruaren Legeko 79. artikuluan zehaztutakoa bermatuko da. Lurralde mailako azpiegituren zor- eta babes-eremuak ere beteko dira.

Eman beharreko gutxieneko informazioa:

1.- Hirigintza-informazioa eta antolakuntzaren ideia nagusiak (helburuak, estrategiak, sistema orokorren aldaketak…).
2.- Partzela-planoa (jatorrizkoa eta proposatutako berria; partzela berriak izendatu).
3.- Kalifikazio- edo zonifikazio-planoa (erabilera xeheak; gunearen eta sistema orokorren mugak ondo zehaztuko dira, baita lurralde-mailako azpiegituren zor-eremuak ere).
4.- Lurzoru-mailatik gorako gehienezko lerrokadurak eta sestrak (kota nagusiekin).
5.- Lurzoru-mailatik beherako gehienezko lerrokadurak eta sestrak (kota nagusiekin).
6.- Sekzio orokorrak.
7.- Hirigintza-parametroak (Lurzoruaren Legeak eskatzen dituen estandarrak betetzen direla frogatuz).
8.- Partzeletako hirigintza-fitxak (lerrokadurak, profilak eta bestelako ordenantzak).
9.- Eraikinen tipologien ereduak.

Plano gutxiago edo gehiago egin daitezke, eskatzen den gutxieneko informazioa osatzen bada.
Emateko formatua: Paperean, **din-A1** formatuan, **A4-ra tolestuta**, eta CDan (pdf edo jpg).

Ariketa **otsailaren 9an** emango da, eskolaren amaieran.

Gasteizen, 2009ko abenduaren 20an

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño